JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

**ANA ETXEBERRIA ELIZONDOK, ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIKO ORDEZKO IDAZKARIAK, ZIURTATZEN DU:**

2022ko apirilaren 8an egindako ohiko Osoko Bilkuran honako akta hau egin da:

Ezkarozen, Zaraitzuko Etxeko bilkura-aretoan, 2022ko apirilaren 8ko 17:00etan, Zaraitzuko Batzorde Nagusiak ohiko Osoko Bilkura egin du, Pedro Mascaray Navarro batzordeburu dela.

Honako batzordekide hauek bertaratu dira:

**ALDAGAINA**: Ana Sagardoi.

**ERRARTEA**: Gonzalo Celay.

**ATABEA**: Pedro Mascaray, Elena Ayerra eta Pio Sarries.

Senberoizek bertaratu ezina adierazi du.

Batzordeburuak bilkura hasi, eta honako erabaki hauek hartu dira:

**1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA**

Aurreko bilkuraren akta ikusirik, aho batez onetsi da.

**2. EXPLORA SAREAREN ETA TITULARTASUN PUBLIKOKO ERAIKINAK BIRGAITZEKO ESTATUAREN DIRULAGUNTZAK. ESKAERAK ONESTEA, EGOKIA BADA.**

Batzordeburuak energia-eraginkortasuna lortzeko eraikinak birgaitzeko Estatuaren dirulaguntzaren

**ANA ETXEBERRIA ELIZONDO, SECRETARIA SUPLENTE DE LA JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR, CERTIFICO:**

Que de la sesión **ORDINARIA** celebrada con fecha ocho de abril de 2022, se ha extendido el acta que se transcribe a continuación:

En la Villa de Ezcároz y en la Sala de Sesiones de la Junta General del Valle de Salazar, siendo las diecisiete horas del día ocho de abril de 2022, se reúne la expresada Junta, al objeto de celebrar, previa convocatoria cursada al efecto en forma reglamentaria, Sesión Ordinaria bajo la Presidencia de D. Pedro Mascaray y con la asistencia de las y los siguientes Vocales:

**POR ALDAGAÑA:** Sra. Ana Sagardoy.

**POR ERRARTEA:** Sr.: Gonzalo Celay.

**POR ATABEA:** Srs/a.: Pedro Mascaray, Elena Ayerra y Pío Sarries.

Excusa su asistencia el Sr. Semberoiz.

Abierta la sesión por el Sr Presidente, se adoptaron los siguientes acuerdos:

**1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR**

Vista el acta de la sesión anterior es aprobada por unanimidad.

**2.- DAR A CONOCER PUBLICACIÓN DE SUBVENCIONES RED EXPLORA Y SUBVENCIÓN ESTATAL PARA REHABILITACIÓN DE EDIFICIOS DE TITULARIDAD PÚBLICA. APROBACIÓN SOLICITUDES SI PROCEDE.**

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

berri eman du. Azaldu duenez Erremendiarena sar daiteke, egiteke dagoena zein egindakoaren zati bat, deialdiaren baldintzak betetzen baititu. Aierdi ingeniariei eta Cedernari memoria eta dokumentazioa egiteko agindu die.

Halaber, proiektu estrategikoetarako laguntzen hurrengo deialdian Erremendiako ingeniariaren eraikina sar litekeela aipatu du.

Sagardoik adierazi du ez dagoela ados funtzionamendu horrekin. Bere ustez, egokiena da lehenik premia izatea eta gero dirulaguntza eskatzea, eta ez behar bat sortzea dirulaguntza eskatzeko.

Batzordeburuaren ustez, diru publikoaren kudeatzaile gisa, Batzordearentzat egiten den guztia ahalik eta errentagarriena izan behar da, eta, beraz, ahalik eta dirulaguntza gehien eskatzen saiatu behar da.

Aho batez onetsi da Orhin bidezidorrak sortzeko (Bortz Kolore proiektua) dirulaguntza eskatzea.

Gehiengoz onetsi da, Sagardoiren aurkako botoarekin, goian aipatu deialdietan Erremendiarentzat dirulaguntzak eskatzea.

## 3. IRACHE KONTSUMITZAILEEN ELKARTEAREN ESKAERA ONESTEA

Otsagabiko udalak Irache Kontsumitzaileen Elkartearen Kontsumitzaileen Bulego bat jartzeko bidalitako proposamena aztertu da. Horren arabera, bulegoan hilean behin eginen lukete harrera, 10:00etatik 13:00etara, udan eta abenduan izan ezik. Hileko kostua 250 eurokoa da; apirilean

El Sr Presidente informa de la subvención estatal sobre rehabilitación de edificios para conseguir eficiencia energética.

Podría solicitarse para Remendia, no solo de lo pendiente de hacer sino de parte de lo que se ha hecho, ya que cumple con los requisitos de la convocatoria. Ha encargado a Aierdi ingenieros y a Cederna que realicen la Memoria y documentación necesaria.

Anuncia también de la próxima convocatoria de ayudas de Proyectos Estratégicos que podría encajar en el edificio del ingeniero de Remendía.

La Sra. Sagardoi manifiesta su disconformidad con ese funcionamiento. Entiende que lo correcto, es tener una necesidad primero y luego solicitar la subvención y no crear la necesidad para pedir subvención.

El Sr Presidente entiende que es una obligación como gestores de dinero público que lo que se haga sea lo más rentable posible para la Junta, por lo que intentaría solicitar todas las subvenciones que se pueda.

Se aprueba por unanimidad la solicitud de subvención para financiar la creación de senderos en Orhi (Proyecto Bortz Kolore)

Se aprueba por mayoría, con el voto en contra de la Sra. Sagardoi, la solicitud de subvenciones para Remendía para resto de Convocatorias.

## 3.- APROBACIÓN SOLICITUD CONSUMIDORES IRACHE

Se estudia la propuesta remitida por el Ayuntamiento de Ochagavia/Otsagabia, para poner una Oficina del Consumidor de la Asociación de Consumidores Irache, en la que atenderían un día al mes, en horario de 10 a 13

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

hasiz gero, aurtengo kostua 1.500 eurokoa izanen litzateke.

Aho batez erabaki da kontsumitzaileen informaziorako bulegoa jartzen laguntzea. Batzordeak kostuaren erdia hartuko du bere gain, eta udalek gainerakoa. Iracherekin hitzartu aurretik, idatziz jaso beharko da ibarreko udalen finantzaketa-konpromisoa.

**4. LANGILEEN ORDEZKARIAREN IDAZKIAK. ERANTZUTEA, EGOKIA BADA**

Ordezkari sindikalaren bi idazki jaso dira.

Lehenengoa Batzordeko langileen lan-egutegiari buruzkoa da; hori dagoeneko eman zaio langile bakoitzari, baita ordezkari sindikalari ere (posta ziurtatu bidez bidali ziren).

Bigarrenean zenbait alegazio egiten ditu, eta Batzordeari azalpenak eskatzen dizkio hauei buruz: aurreko kanpainan sortu zen lanpostu-osagarriari buruz, laguntzaileek bakarrik kobratu zutena; eta Irati Basoa enpresa publikoko langileek ibilgailuak erabiltzeari buruz; langile horiek Iratin dute lantoki, basozainek bezala, baina Batzordearen ibilgailuak erabiltzeko baimena dute.

Sagardoik adierazi du bat datorrela idazkiko gauza askorekin, eta ez dagoela batere ados 150 euroko osagarriarekin, ez delako Osoko Bilkuran adostu. Batzordeburuak idazkariari galdetu dio gaia Osoko bilkuran aztertu behar den; idazkariak erantzun dio aztertu egin behar duela. Batzordeburuak azaldu du osagarria "ad personam" izan zela, eta langile bakoitzak berariaz eskatu behar

horas exceptuando verano y diciembre.

Si empezaran ya desde abril, el coste sería 1.500 € ya que el coste mensual son 250 €.

Se acuerda por unanimidad, la implantación de una oficina de Información al

consumidor que financiará la Junta por mitad, y la otra mitad el resto de Ayuntamientos. Antes de concretar con Consumidores Irache, se obtendrá por escrito el compromiso de financiación por parte del resto de ayuntamientos del Valle.

**4.- ESCRITOS DELEGADA DE PERSONAL. CONTESTACION SI PROCEDE.**

Se reciben dos escritos de la delegada sindical, uno de ellos relacionado con los calendarios laborales del personal trabajador de la Junta, que ya han sido entregados a cada puesto de trabajo, así como a la delegada sindical (fueron enviados por correo certificado).

Otro escrito, conteniendo alegaciones y solicitando a la Junta, aclaraciones en relación a la creación de un complemento de puesto de trabajo la Campaña pasada, que solamente cobró el personal de apoyo, y, en relación al uso de vehículos por parte del personal de la empresa pública Irati Basoa, que, igual que el personal del guarderío tienen el centro de trabajo en Irati y sin embargo están autorizados a la utilización de los vehículos propiedad de la Junta.

Toma la palabra la Sra Sagardoi para expresar que "*está de acuerdo con bastantes cosas del escrito. Que rechaza frontalmente la propuesta de complemento de 150 € por no haber sido acordada en sesión*". El Presidente plantea a la secretaria si debe pasarse por

zuela. Sarriesek horixe berretsi du.

Batzordeburuak adierazi du hemendik aurrera langileei buruzko gai Guztiak Osoko Bilkuran erabakiko direla, eta ez dela saiatuko ezer konpontzen Bilkuran onetsi arte. Horregatik, langileen idazkiak edo eskaerak Batzordearen helbide elektronikora bidali beharko dira, eta ez berera. Bere iritziz, gero eta argiago dago langileen arduradun bat kontratatu beharra dagoela.

Sagardoi kexu agertu da Bilkurarako dokumentazioa bezperan eta egunean bertan bidali direlako, eta horrela gaiak sakon aztertzeko aukerarik ez dagoelako.

Jakinarazi da gaur bertan Silvia Iriartek beste bi idazki aurkeztu dituela, horiek langile gisa aurkeztuta.

Batean aipatzen du egutegia zenbakiekin baina izenik gabe bidali dela, eta eskatu du Batzordeak izenak jar ditzan. Gai hau premiazkoa denez -bihar lanean hasiko dira-, honako hauek esleitzea erabaki da:

1. zenbakia Mª Jose Ilintxetari, 2. zenbakia Iñaki Arozarenari, 3. zenbakia Silvia Iriarteri, 4. zenbakia Adrián Iriarteri eta 5. zenbakia Boni Adoti.

Basozaingoko langileei idazki bat bidaltzeko proposamena egin da. Adostasunik ez dagoenez, bozketa egin da, eta gehiengoz onetsi da idazkia bidaltzea, Sagardoiren abstentzioarekin. Presakoa izanik, idazkia Bilkura amaitu bezain laster bidaliko zaie.

Idazki horretan, zenbakien esleipena jakinarazteaz gain, Batzordeak

sesión y ésta contesta que debe estudiarlo. Explica el Sr Presidente, que el complemento era "*ad personam*" por lo que cada persona trabajadora debía solicitarlo expresamente. Así lo refrenda el Sr Sarries.

A partir de ahora, el Presidente manifiesta que "*todos los temas referidos al personal trabajador, serán decididos por todos y todas en sesión, que no va a volver a intentar solucionar nada mientras no sea aprobado en sesión. Por esto, ningún escrito o demanda de los trabajadores y trabajadoras será remitido a su correo personal sino al de la Junta.* Explica que "*cada día ve más necesario la contratación de un encargado".*

La Sr Sagardoi, se queja del envío de documentos el día anterior o el mismo día de la sesión, lo que no da margen para poder ser estudiados en profundidad.

Se informa que en el día de hoy, Silvia Iriarte ha presentado otros dos escritos no como delegada sino como trabajadora. En uno de ellos hace alusión al calendario que se ha remitido *con números y sin nombre y solicita que sea la Junta quien ponga los nombres*. Dado que este es un tema urgente porque empiezan el trabajo mañana sábado, se acuerda asignar:

El número 1 a M. Jose Ilintxeta, el número 2 a Iñaki Arozarena, el número 3 a Silvia Iriarte, el número 4 a Adrián Iriarte y el número 5 a Boni Adot.

Se propone un texto para su envío a los trabajadores y las trabajadoras del guarderío; ante la falta de unanimidad, se procede a votar a favor o en contra de su envío. Se aprueba el escrito por mayoría con la abstención de la Sra Sagardoi por lo que, dada la urgencia, se enviará tras la sesión.

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

langile-talde horrek egin behar dituen eginkizunak berretsi eginen ditu, egutegiarekin batera bidali zirenak.

Langileei egutegi alternatibo bat aurkeztea ere proposatuko zaie. Azalduko da lana aurreko kanpainan bezala antolatuko dela, eta eguneko parteak eta eskaerak Batzordearen helbide elektronikora edo egoitzara bidali beharko direla, bulegora edo postontzira.

Bestalde, jakinarazi da legezko eskakizuna dela Batzordeak finkoak ez diren lanpostuen lan-eskaintza publiko bat egitea, edo, bestela, lana enpresa baten bidez gauzatzea, dagokion lizitazioarekin.

Aho batez erabaki da Iriartek aurkeztutako idazkien erantzuna hurrengo Osoko Bilkurarako uztea.

**5. UDALEK ETA BATZORDEAK ORDAINTZEN DUTEN OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAREN KOSTUAK PAREKATZEA. PROPOSAMENA AZTERTZEA ETA ONESTEA, EGOKIA BADA**

Batzordeburuak hartu du hitza, eta azaldu du Batzordeak Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean botorik eman ezin duenez, kostua edo defizita udalekin erdibanatu beharko litzatekeela; Mankomunitateak ez lituzkeela sarrera finkotzat hartu beharko Batzordearen aurrekontuko 25.000 euroak (oinarrizko gizarte zerbitzua) eta 6.000 euroak (0-3 eskola).

Gaia eztabaidatu da, eta adostasunik ez dagoenez, bozkatu egin

En dicho escrito, además de comunicar la asignación de los números del calendario,

la Junta se reafirma y se remite a la relación de funciones que este grupo de trabajadores y trabajadoras debe realizar y que se han enviado por escrito junto al calendario. Se hace un ofrecimiento a que este personal presente un calendario alternativo. Se explica que la organización del trabajo será igual que en la Campaña anterior. Que los partes diarios y cualquier petición no se dirija al Presidente a través de su correo personal sino al correo de la Junta y en la sede de la Junta, bien en la oficina bien en el buzón. Asimismo, informan de la exigencia legal de que la Junta realice una oferta pública de empleo con todas las plazas que no sean fijas o bien, realizar la ejecución del trabajo por medio de una empresa con su licitación correspondiente.

Asimismo, se acuerda por unanimidad, dejar la contestación de los escritos que estaban para la sesión de hoy y los presentados en el día de hoy por la Sra Iriarte, para una próxima sesión.

**5.- EQUIPARACION DE LOS COSTES DEL SERVICIO SOCIAL DE BASE QUE PAGAN LOS AYUNTAMIENTOS Y LA JUNTA DEL VALLE. PROPUESTA DE ESTUDIO Y APROBACIÓN SI PROCEDE.**

Toma la palabra el Sr Presidente para explicar que, visto que la Junta no puede tener voto en la Mancomunidad de Servicios Sociales, entiende que el coste o déficit de la Junta debería ser asumido por mitad junto a los Ayuntamientos. Que los 25.000 € y 6.000 para el 0-3 años, que la Junta presupuesta, no debería considerarse por la Mancomunidad como un ingreso fijo.

da.

Batzordeburuaren proposamenaren alde: Celay, Sarries eta Ayerra.

Orain arte bezala jarraitzearen alde (25.000 € emanez): Sagardoi.

Aho batez erabaki da batzordeburuak oinarrizko gizarte-zerbitzua eta 0-3 finantzatzeko proposamen hau azaltzea Batzordearen eta udalen arteko bileretan.

**6. LAN ERREFORMAREN ONDORIOAK BATZORDEAREN KONTRATATZIOETAN**

Lan erreforma indarrean sartu zen egunean, aholkularitzari eskatu zitzaion basoko bi langile finkoen deialdia egiteko eta baso-langile lanpostu hutsa betetzen duen langileari kontratua egiteko. Lan erreforma berriak obra eta zerbitzu kontratuak deuseztatu ditu, eta aldi baterako kontratuak mantendu ditu gai oso espezifikoetarako eta iraupen laburrekoetarako. Aholkularitzak adierazi du lan-araubidean egin daitekeen kontratu bakarra kontratu finkoa dela (administrazioan, kontratu mugagabea).

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da baso-langileari aldizkako kontratu mugagabea egitea Batzordeak lanpostu hutsa atera arte.

**7. KILOMETROAREN PREZIOA 0,33 EUROTIK 0,49 EURORA IGOTZEKO PROPOSAMENA**

Erregaien igoera dela-eta, Batzordeburuak kilometroaren prezioa 0,49 euroan ordaintzea proposatu du.

Se debate el asunto, ante la falta de unanimidad se procede a votar.

A favor de la propuesta del Sr Presidente Srs/a: Celay, Sarries y Ayerra

A favor de seguir como hasta ahora aportando 25.000 € Sra Sagardoi.

Se acuerda por unanimidad, que el Presidente traslade en las reuniones de Junta-Ayuntamientos esta propuesta de financiación del Servicio Social de Base y 0-3 años.

**6.- ENTRADA EN VIGOR DE LA REFORMA LABORAL. CONSECUENCIAS EN CONTRATACIONES JUNTA**

El día que entraba en vigor la reforma laboral, se solicitó a la asesoría que realizaran los llamamientos de los dos trabajadores forestales fijos y el contrato al trabajador que hace las funciones propias de la plaza vacante de forestal. La nueva legislación denominada como “reforma laboral” ha suprimido los contratos por obra y servicio y deja a los contratos de modalidad temporal para cuestiones muy específicas y para un corto espacio de tiempo. La asesoría manifiesta que el único contrato que puede hacerse en este caso a nivel laboral es el contrato fijo (en la Administración, indefinido).

Se debate el asunto, se acuerda por unanimidad realizar un contrato indefinido discontinuo hasta que la Junta saque la plaza vacante.

**7.- PROPUESTA DE SUBIDA DEL PAGO DEL PRECIO POR KILOMETRAJE DE 0,33 A 0,49 €/KM.**

A propuesta del Sr Presidente y debido a

Gaia eztabaidatu da, eta adostasunik ez dagoenez, bozketa egin da.

Proposamenaren alde: Mascaray, Sarries eta Ayerra.

Aurka: Sagardoi eta Celay.

Horrenbestez, gehiengoz onetsi da.

**8. KARTELEI BURUZKO ORDENANTZA ONESTEA**

Kartelei buruzko ordenantza bat egiteko zirriborroa aurkeztu da. Sagardoik esan du ez duela beharrezkotzat jotzen.

Gaia eztabaidatu ondoren, gehiengoz erabaki da, Sagardoiren aurkako botoarekin, Zaraitzuko Batzorde Nagusiaren jabetzako espazio publiko osorako, bai higiezinak, bai naturguneak, ordenantza bat prestatzea.

**9. EUSKARAREN ORDENANTZA BERRAZTERTZEKO PROPOSAMENA. ALDAKETA ONESTEA, EGOKIA BADA**

Batzordeburuak azaldu du, laster finkoak ez diren lanpostu hutsak bete beharko direnez, langile batzuek lanpostu finkoa bereganatu ahal izanen luketela, esperientzia asko baloratzen delako, baina Euskararen Ordenantzan eskatzen den titulazioa ez dutenez ezin izanen dute, ezin izanen direlako probetara aurkeztu. Batzordeburuak adierazi duenez *“Euskararen alde egon arren, euskararen nahitaezkotasuna kentzea proposatzen dut, aldi baterako bada ere”*.

la subida del combustible, ese propone la subida del pago del precio del kilometraje a 0,49 €/Km.

Se debate el asunto. Ante la falta de unanimidad se procede a votar a favor o en contra de la propuesta.

A favor Srs/a: Mascaray, Sarries y Ayerra.

En contra Sra/r: Sagardoi, Celay.

Se aprueba por mayoría subir el pago del precio del kilometraje de 0,33 a 0,49 €/km.

**8.- APROBACIÓN ORDENANZA CARTELERIA**

Visto borrador presentado para la elaboración de una Ordenanza de cartelería, toma la palabra la Sra Sagardoi para manifestar que no cree necesaria un Ordenanza de cartelería.

Debatido el asunto y con el voto en contra de la Sra Sagardoi, se acuerda por mayoría trabajar para la aprobación de una Ordenanza de cartelería para todo el espacio público propiedad de la Junta del Valle de Salazar, tanto inmuebles como espacio natural.

**9.- PROPUESTA DE REVISION DE LA ORDENANZA DEL EUSKERA. APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN SI PROCEDE**

Plantea el Sr Presidente, que, ante la próxima provisión de vacantes de puestos que no están cubiertos de manera fija, puedan existir trabajadores, que pudiendo sacar la plaza fija porque se valora mucho la experiencia, no lo puedan hacer porque no tienen la titulación exigida en la Ordenanza

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Idazkariak azaldu du ezin dela aldi baterako eten inongo ordenantza edo bestelako arau juridikorik.

Sagardoi aurka agertu da, eta proposatu du euskara batzordeak ordenantza hausnarketa-prozesu batean aztertzea eta proposamen bat egitea, bai Batzordeari bai udalei.

Aho batez onetsi da euskara batzordeari eskatzea Euskararen Ordenantzari buruz hausnartu eta Batzordeari eta Udalei proposamen bat egin diezaien.

**<u>10.- EUTSIREN PROPOSAMENA, BATZORDEAK KOOPERATIBARENTZAKO DIRULAGUNTZAK BIDERATU DITZAN</u>**

Batzordeburuak azaldu du Maiak (Eutsi) aipatu diola Nafarroako Gobernuaren edo beste erakunde publiko batzuen zenbait dirulaguntza eskuratu daitezkeela, erakunde publiko baten bidez eskatzen badira; Eutsiko langileek dena prestatuko luketela, eta Batzordeak soilik bere izenean aurkeztu beharko lukeela.

Celayk adierazi du ez duela gaian parte hartuko, enpresarekin lotura duelako.

Idazkariak adierazi du ez duela ezagutu bere ibilbide profesional osoan enpresa batek dirulaguntza bat jaso ahal

del Euskera y por lo tanto no pueden presentarse a las pruebas. *A pesar de estar a favor del euskera,* expresa el Sr Presidente, *mi propuesta sería quitar el requisito del euskera, al menos momentáneamente.*

La secretaria, explica que no se puede suspender momentáneamente ninguna Ordenanza ni otra norma jurídica.

La Sra. Sagardoi se manifiesta en contra de esto y propone que sea la comisión de euskera la que valore la Ordenanza, en un proceso de reflexión y que sea esta Comisión la que realice una propuesta no sólo a la Junta sino también al resto de Ayuntamientos.

Se aprueba por unanimidad, instar a la Comisión de Euskera para que realice una reflexión sobre la Ordenanza del Euskera y haga una propuesta a la Junta y a los Ayuntamientos del Valle.

**<u>10.- PROPUESTA DE EUTSI PARA QUE LA JUNTA SEA VEHÍCULO PARA OBTENER SUBVENCIONES PARA LA COOPERATIVA.</u>**

Toma la palabra el Sr Presidente para explicar que habló con Maia de Eutsi y le comentó que existen subvenciones para poder pedir al Gobierno de Navarra o a otros organismos que necesitan una Entidad Pública para poder ser vehiculizadas. Que las trabajadoras de Eutsi harían todo el papeleo y que la Junta solo sería la Entidad Local a través de la cual se solicitan.

El Sr Celay se abstiene de intervenir en este punto por seguir vinculado en la empresa.

izatea hori toki-erakunde baten bitartez bideratuta; baina, hala bada, ez duela ulertzen zergatik ez den egiten Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen bidez. Hala ere, adierazi du deialdiko arauak aztertu eta horren arabera erabakiko duela eskaera-prozeduran parte hartu ala ez.

La secretaria expresa que no conoce en toda su trayectoria profesional que una empresa pueda "vehiculizar" el cobro de una subvención a través de una Entidad Local y tampoco entiende, si esto es así, que esto no se haga a través de la Mancomunidad de Servicios Sociales, no obstante, con las normas de la Convocatoria en cuestión en la mano, verá de qué se trata y se eximirá o no de participar en el procedimiento de solicitud.

**11. DIRUAREN ERABILERA**

Jarraian, ondoren zehazten diren fakturak onetsi dira:

**11.- DISPOSICIÓN DE FONDOS**

facturas que se detallan a continuación:

FERRETERIA LUGA, diverso material Centro Esqui Abodi .............................. 51,04

IZASKUN MUJIKA, actividad Serv. Euskera "ipuinaren ordua" ..................... 187,00

MANTENIMIENTOS NAVARRA, cuota anual mantenimiento cloradora Casas de Irati ........................................................................................ 999,99

EKILORE, limpieza Casa Valle y limpieza y arreglo cortinas .......................... 338,80

JOSU JIMENEZ, actividad Serv. Euskera Zaraitzuko irakurle taldearen .......... 165,00

GAZTEIZ COMPONENTES ELECTRICOS, conexión y adaptador HDMI salón actos .............................................................................................. 19,89

CORREOS Y TELEGRAFOS, certificado cartas ................................................ 36,90

MANCOMUNIDAD EUSKERA NORTE NAVARRA, 1ª parte premio Etxepare .............................................................................................. 714,45

CONFEDERACION HIDROGRAFICA DEL EBRO, tasa por registro regata Orradoia, para captación agua para Centro de Esqui Abodi ................................ 91,84

LANKU BERTSO ZERBITZUAK, actividad servicio Euskera, (concierto) ..... 695,75

IBERDROLA, luz 2ª planta Casa Valle .............................................................. 18,84

IBERDROLA, luz báscula 15/02 al 15/03 ............................................................. 5,51

TELEFONICA, fusión teléfono Junta, Servicio Euskera, móvil trabajadores e

internet ........................................................................ 139,65
MUSKILDA MANCHO, productos de limpieza ........................................ 21,15
CORREOS, certificado carta ........................................................ 6,66
SECRETARIA DE ESTADO DE TELECOMUNICACIONES, tasa dominio publico ........................................................................ 111,97
PAPELERIA SANCHEZ, material oficina (cajas archivos expedientes) ........... 114,35
FLANDES, gestiones asesoría 2º trimestre ........................................ 436,72
ESTACION SERVICIO IRATI, gasóleo coche ........................................ 74,39
REVISIONES NAVARRA, ITV coche Toyota 6692 -GCF ................................ 52,64

## 12. GALDE-ESKEAK

19:10ean, Sagardoik bilkura-aretotik alde egin du.

Sarriesek azaldu du Saran egon zirela Xareta Elkartearen (Nafarroako eta mugaren beste aldeko entitate publikoek osatua) funtzionamendua ezagutzeko eta baliabideak partekatzeko, aurreko Interreg-etan egin den bezala.

Erronkarirekin eta Bardeetako Batzordearekin harremanak hobetzea proposatu du.

Bestetik, “hormigoizko mugak” proiektuaren berri eman du, Zaraitzun eta Aezkoan dauden gerra zibileko bunkerrei buruzkoa; Erronkaribarren azterlan bat egin da, eta azterlan hori bertan ere egitearen aldeko apustua egin da.

Batzordeburuak proposatu du Zurich-i azalpenak eskatzea Cedernak erabiltzen duen Izizeko poligonoko Batzordearen etxeko ezbeharrari buruz, oraindik obra amaitzea falta delako. Zurezko lurzorua lehortzen ari zen eta

## 12.- RUEGOS Y PREGUNTAS

Siendo las diecinueve horas y diez minutos abandona la sesión la Sra Sagardoi.

Toma la palabra el Sr Sarries para explicar que estuvieron en Sara para conocer el funcionamiento de la Asociación Xareta formada por Entidades Públicas de Navarra y del otro lado de la muga para compartir recursos, como se ha hecho en los anteriores Interreg.

También propone mejorar las relaciones entre Salazar y Roncal y con la Junta de Bardenas y al tratar con la Junta de Roncal, explica el proyecto de “fronteras de hormigón” sobre los búnqueres de la guerra civil que quedan en Salazar y Aezkoa; En el Roncal se ha hecho el estudio y se apuesta por hacer ese estudio aquí.

El Sr Presidente solicita pedir una explicación a Zurich sobre el siniestro de la casa de la Junta del polígono de Iciz, donde trabaja Cederna, porque aún falta que se termine la obra. La madera del suelo estaba secándose y hoy es el día en que la obra sigue sin terminar.

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

obra oraindik amaitu gabe dago.

Bestaldetik, azaldu du Mimentzarekin adostu duela higiezina Cedernari lagatzeko kontratu berri bat egitea, aurrekoa iraungita baitago.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 19:30an Batzordeburuak bilkura amaitu du, eta akta hau egin da, batzordekide guztiek sinatua.

Ezkarozen, 2022ko apirilaren 11n

Asimismo, explica que ha acordado con el Sr Mimentza la elaboración de un nuevo contrato sobre la cesión a Cederna de ese inmueble ya que el contrato está caducado.

Y, no habiendo más asuntos que tratar, se levantó la sesión por el Sr. Presidente, a las diecinueve horas y treinta minutos, de la que se extiende la presente acta, que es suscrita por los Sres. asistentes conmigo la Secretaria.

En Ezcároz a 11 de abril de 2022.

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR * ZARAITZUKO IBARRAREN BATZORDEA
EZCÁROZ